



## EAEko Hezkuntza lege-aurreproiektuaren zirriborroari LABen ekarpenak

Hainbatetan adierazi bezala, LABek beharrezkotzat jotzen du Euskal Herriko hezkuntza-sistema propio eta burujabea eraiki bidean, Euskal Herriko lurraldeek eta administrazio bakoitzak hezkuntza eskumenak eskuratu eta hezkuntza-lege berriak erdiestea. Testuinguru honetan kokatu du LABek Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztu den hezkuntza legea, egungo hezkuntza-sistemaren antolaketa eredu gaituzte eta sare publiko bakar eta deszentralizatuan antolaturiko ereduaren trantsiziorako tresna izan litekeena.

Zirriborroa ikusita, trantsiziorako lege-aurreproiektua izateko urrun, hainbat dira LABen ikuspegitik argitu edota hobetu beharreko puntuak. Gainera, atentzioa ematen du lege-aurreproiektu honetan, ondoren dekretu edo erregelamendu bidez arautzeko hainbat gauza geratzen direla asmo hutsean, irekian edo zehaztasun maila handiegirik gabe.

Hortaz, lege-aurreproiektua zuzendu eta hobetu asmoz hurrengo alegazio edo ekarpenak aurkezten dizkio LABek:

### ZIOEN AZALPENA

- Abiapuntuan, egungo hezkuntza-sistemak dituen gabeziak (eskuduntzei dagokionez eta ereduari dagozkionak, besteak beste) onartu behar dira eta Hezkuntza Legearen helburua horiek gaituzte izan behar dela jaso.
- Euskal Herriak bere hezkuntza-sistema burujabe eta propioa eratzeko duen eskubidea jaso behar da. Indarrean dagoen Autonomia Estatutuak, ez du hezkuntza gaietan eskuduntza osorik barnebiltzen, beraz, egungo status juridiko-politiko gaituzte eta, hezkuntza eskumen osoaren transferentzia eta hezkuntza gaietan erabaki ahalmen osoa beharrezkoa dela jaso behar da. Era berean, legeak egituratu behar du Euskal Herriko gaituzteko lurraldeekin izango duen harremana.
  - Egiturazkoa litzatekeen Euskal Curriculuma garatu beharko luke eta hezkuntza-sistema osoan ezarri. Lege-proiektuak jaso beharko luke, epe motzean, Jaurlaritzak bere eskumen guztiak baliatuta adituekin eta eragileekin elkarlanean euskal curriculuma osatuko duela beraz hezkuntza-sistemaren egiturazko bide-lerroa izanik.
  - Langileria propioa izan eta arautzeko legea izan beharko litzateke (langile funtzionario eta laboralak) eta hezkuntzako langile-kolektibo ezberdinen sarbidea -bakarra beharko lukeena- bertan arautu, alde sozialarekin negoziatuz, noski. Horrekin batera enplegu publikoaren eskaintzen eredu gaituzte behar aldatu aldatu beharko litzateke alde sozialarekin adostasunez.
- Eskola publikoari dagokion protagonismoa emateko, beraz ardatz duen hezkuntza-sistema eraikitzeaz aritu beharko litzateke testua, titularitate publikoa eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea uztartuko duen sare publiko eta berri bakarreranzko trantsizio bide gisa; trantsizio epea mugatuz, alegia.

Egun indarrean dagoen eredu dualetik sare bakarrerako bidea egitea planteatzen du LABek, konfluentziaz -eta ez sareen elkarbizitza eta betikotzetik- sortutako bidea eginez.



Deszentralizazioan eta parte hartzean oinarrituriko publikotasun berri batean oinarrituko litzatekeena.

## I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

### IV. Kapituluak.- Irakaskuntzen antolamendua

#### Lehen Atala: Irakaskuntzen antolamendua eta curriculum akademikoa

#### 8. artikulua.- Irakaskuntzen antolamendua

1.- *Euskal hezkuntza-sistemak, indarrean dagoen legeriaren arabera, irakaskuntza hauek biltzen ditu:*

1.1- *Araubide orokorreko irakaskuntzak: (gehitu)*

a) *Haur hezkuntzako etapa (0-6). Haur hezkuntzako etapa osoa barnebildu eta pedagogikoki aintzat hartzen duena, 0-6a, bi zikloetan banatua dagoena: 0-3 eta 3-6a. Zentzu horretan, Haur hezkuntzako lehen zikloa hezkuntza-sistemaren eta hezkuntzaren eskumena duen sailaren barruan integratu eta eskola mapetan txertatu behar da.*

#### 9. artikulua.- Curriculumak eta oinarritzko gaitasunak

4.- (gehitu) *Irakaskuntza bakoitzaren curriculumak bere eskumenak baliatuta Eusko Jaurlaritzak zehaztu eta garatuko du adituekin eta eragileekin batera; Euskal Herria bere ondare linguistiko, kultural eta sozialarekin batera aintzat hartzen duen eta euskalduntzea, inklusioa, ekitatea edo justizia soziala, hezkidetzak, antiarrazismoa zein ekologismoa oinarri lituzkeen Euskal Curriculumaren baitan. Euskal curriculumak ikasle batek arlo ezberdinetan izan beharko lukeen irteera profila zehaztu behar du irakaskuntza bakoitzean.*

#### Bigarren Atala: Araubide orokorreko irakaskuntzak

#### 10. artikulua.- Haur Hezkuntza

2.- (aldatu) *Haur-hezkuntzak baldintza egokiak bultzatu eta erraztu behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen murgiltze eta mantentze sistemak oinarrituriko ikas-eredu orokortua ezartzeko ~~bi hizkuntzetan elebitasun orekatua bermatzeko, eta atzerriko hizkuntza batean hezkuntza-ekintza gauzatu behar ditu~~.*

3.- (osorik aldatu) *"Haur-hezkuntza jaiotzatik sei urtera bitarteko hezkuntza-etapa da, eta bi ziklo ditu: lehenengo haurtzarora, zero urtetik hiru urtera bitartekoa; eta lehen irakaskuntza, hiru urtetik sei urtera bitartekoa. Eusko Jaurlaritzak ezingo du lehen irakaskuntzaren zikloa bi urtetik sei urtera luzatu, doakotasunaren ondorioei dagokionez. Ituntze-sistema ezingo da zabaldu eta ikastetxe itunduetako 2 urteko gelak baldintza betearazleak (doakotasuna, euskalduntzea, inklusioa eta aniztasunaren trataera, laiktasuna, aukera berdintasuna, lan-baldintza duinak) dituen diru-laguntza bitartez finantzatu dira.*

*0-2 etapari dagokionez, Haurreskolak Partzuergo Publikoa indartuko eta hedatuko du, eskaintza unibertsal, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko gisa.*

### V. Kapituluak – Ikastetxeen tipologia



## 20. artikulua.- Ikastetxeen tipologia

5.- (kendu) "*Euskal Hezkuntza Zerbitzua **Publikoa** ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez emango da.*"

- Publikoa, titularitate publikoa duena da. Egungo sistema duala betikotu eta mantentzeko asmoa ageri da hemen; titularitate publikoko eskolak eta titularitate pribatuko ikastetxeak, denak, publikotzat tratatuz.

LABek uste du izaera edo bokazio publikoko ikastolak eta ikastetxeak badaudela; zerbitzu publikoa eskaintzen duten arren, oraingoz sare publikoan ez daudenak. Eta horietaz gain, oraindik orain irabazi asmoa duten edota doktrinamendu erlijiosoa hezkuntza-proiektuan txertaturik duten ikastetxe itunduak. Legeak bere baitan jaso beharko luke sare publiko bakar eta deszentralizaturako trantsizio-proposamena, non Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte diren ikastetxeak titularitate publikorako bidea egingo luketen.

## 21. artikulua.- Ikastetxe publikoak

1.- (gehitu) "*Publikotzat jotzen dira hezkuntza-administrazioa zein tokiko udal administrazioa titular duten ikastetxeen sarearen zuzeneko mendekoak diren eta oso-osorik funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxeak, udal haur eskolak eta Haurreskolak Partzuergo Publikoa barne.*"

## 22. artikulua.- Itunpeko ikastetxe pribatuak

3.- (gehitu eta aldatu) "*Itunpeko ikastetxeak, beren finantzaketa publikoaren arabera, interes sozialekotzat hartuko dira, eta Lege honetan eta beronen erregelamendu bidezko garapenean zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte; besteak beste, doakotasuna, euskalduntzea, inklusioa eta aniztasunaren trataera, hezkidetzeta, laikotasuna, doktrinamendu erlijiosorik eza eta aukera berdintasuna. Funts publikoa jasotzeko legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko ikuskaritza zorrotzak ezarriko ditu hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak; horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezarriko dira. Baldintza horiek betetzen ez dituzten ikastetxeak finantzaketa publikorik gabe geratuko lirarteke eta euskal hezkuntza zerbitzutik kanpo.*"

Interes sozialekotzat edo gizarte-intereseko ikastetxeak ezarritako auditoretzei eta kontabilitateko gardentasun-arauei atxikitzeko beharrezko araudia garatuko da, diru publikoaren erabileran izaera finalista ziurtatzeko eta beste finantzaketa-iturri batzuen joan-etorrian euskal hezkuntza zerbitzuko zentro guztien artean irizpide auditagarriak bateratzeko. Araudi honetan, auditoria ekonomikoko lanak egiteko zehaztuko den administrazio-unitatea sortuko da.

~~Hala badagokio~~, *Itunpeko ikastetxe pribatu guztiei* auditoretzak egingo zaizkie, eta baliabide publikoen erabilera finalista ziurtatzea ahalbidetzen duten kontabilitate-gardentasuneko arauak bete beharko dituzte.

4. (bis)- (gehitu) Itunpeko araubidea duten titulartasun pribatuko ikastetxeak titularitate publikora pasatzeko, alde sozialarekin adostutako publikazio araubidea garatuko du hezkuntzaren eskumena duen sailak hala nahi duten ikastetxeak sare publikora batzeko eta langileak subrogatzeko.

## II. TITULUA.- HEZKUNTZA ETA BIZIKIDETZA POSITIBORAKO ESKUBIDEA

### I. Kapituluak- Hezkuntzarako eskubidea



## 24. artikulua.- (kendu) Hezkuntzaren Zerbitzua **Publikoa**

4.- (gehitu paragrafoa) "Hezkuntza-administrazioak doako irakaskuntzaren prestazioa bermatzen du, dagozkion mailetan eta kalitatez, funts publikoek finantzatutako ikastetxeen bidez, Lege honetan ezarritako baldintzetan.

Doako irakaskuntzaren prestazioa hezkuntzaren oinarritzko beharrak %100 finantzatzeko izango da, eta ez besterik. Haur eta ikasleen oinarritzko hezkuntza beharrak, eremu sozialari, ongizate fisiko eta psikikoari eta akademikoari erantzuten dietenak dira eta hauei lotuta, garapeneko autonomia, jolasa, emozioak, segurtasun afektiboa, natura, esperimenezkoak, hizkuntza, jakintza, elikadura, gorputza, harremanak eta pentsamendu kritikoa. Hortaz, bertatik kanpo leudeke orain arteko praktikak, igerilekuak edo bestelako azpiegiturak finantzatzea, alegia."

5.- (kendu eta gehitu) "Euskal hezkuntza-zerbitzua **publikoa** ikastetxe publikoen eta itunpekoen bidez gauzatuko da, Lege honetan eta beronen erregelamendu bidezko garapenean ezarritako betekizunen arabera:

- Doakotasuna, kuotak debekatuz.
- Segregazio oro gainditzeko inklusiorako neurriak betetzea, matrikulazioan barne.
- Euskararen murgiltze eta mantentze sisteman oinarrituriko ikas-eredu orokortua ezartzea, hizkuntza-ereduak desagertzeko trantsizioa garatuz. Honen baitan kokatuko dira ikastetxeetan langile guztiak euskalduntzeko egin beharreko planak, euskalduntzeko liberazioak barnebiduko dituenak.
- Hezkidetzaren egiturazkoa duen hezkuntza-proiektua izatea.
- Laikotasunerako neurriak; besteak beste, doktrinamendu erlijiosorik ez egitea eta laikotasuna hezkuntza-proiektuaren ezaugarrietako bat izatea.
- Ikasleen aukera berdintasuna bermatzea.
- Irabazi asmorik ez izatea.
- Jangela ereduaren hezkuntza-proiektuan integratuta egotea.
- Langileen sarbidea merituz, gaitasun eta berdintasun printzipioen arabera izatea eta eskaintzen publikitatearen bermatzea, sarbideak kontrol publiko zein sindikala izanik.

## II. Kapituluak.- Bizikidetzaren positiboa

### 27. artikulua.- Inklusioa eta berdintasuna

3.- (kendu) Euskal Hezkuntza-zerbitzua **publiko**ko ikastetxeek...

### 28. artikulua.- Bizikidetzaren, hezkidetzaren eta kulturartekotasuna

5.- (kendu) "Gaur egungo euskal gizartearen sinismen-askotarikotasuna kontuan hartuta, funts publikoen bitartez finantzatutako euskal ikastetxeek, bizikidetzaren bermatze aldera, laikotasunari begira bideratzen dituzte irakaskuntzak, Lege honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, nolatan ere, erlijio-sinismen oro errespetatuz, erlijio-adierazpen desberdinei buruzko oinarritzko ezagutza ahalbidetuz, edozein doktrinamendu-mota debekatuta, ~~hezkuntza-zentroen berezko izaera errespetatzeaz bat.~~

- Doktrinamendua debekatuta egonik, ikastetxeek bete beharreko baldintzetako bat hezkuntza-proiektuen oinarri laikoa da. Hau zein funts publikoak jasotzeko gainerako baldintzak betearazteko hezkuntzaren eskumena duen sailak ikuskaritza zorrotzak ezarri behar ditu.

7.- (gehitu) Inklusioan oinarritutako hezkuntzak ziurtatu behar du Autonomia Erkidegotik kanpoko ikasleak hezkuntza-sisteman erabat sartzen direla, haien sarbidea erraztuz eta irauten eta ikasten



*aurrera egiten dutela bermatuz; horretarako ikasle etorkinak eskolan euskaraz murgiltzeko programa eta baliabide espezifikoak jarriko ditu hezkuntzaren eskumena duen saila.*

### III. Kapituluak.- Hezkuntza-sistemaren plangintza eta sarbidea

#### 31. artikulua.- Hezkuntza-sistamarako sarbidea

*3.- (kendu) Hezkuntza eskumenak dituen sailak, pertsona guztiek berdintasunez hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko eta ikastetxea aukeratzeko eskubidea gauzatzeko, Hezkuntza sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozedura bakarra arautuko du erregelamendu bidez. Prozedura hori honako irakaskuntza hauek ematen dituzten ikastetxeetan aplikatuko da:*

- Haur Hezkuntza, bigarren ziklotik aurrera (~~edo, lehen ziklotik hirugarren urtetik aurrera~~)*

*3. (bis)- (gehitu) Haur hezkuntza derrigorrezko etapa ez den heinean, lehen hezkuntzan derrigorrezko hezkuntzaren eskolaratze prozesuari hasiera ematen dion ikasle orok ikaspostua bermatua izango du bere udalerrian.*

*4.- (aldatu) "Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak alde sozialarekin urterik urte negoziatuko du ikaspostuen eta ikastetxeen planifikazioa, erabakiko du, sartzeko eskubidea arautzen duen erregelamendu-araudiaren eta plan-estrategikoaren ildoan arabera eta, hala badagokio, kontratu programaren arabera, funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeetan zenbat plaza eskainiko diren, lurralde bakoitzaren premiak eta aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, betiere."*

#### 32. artikulua.- Eskolatzeko inklusiborako bermeak

*(puntu bat gehitzea) Udal Hezkuntza Kontseiluak, besteak beste, udal horretako ikastetxeen eskolaratze eta planifikazio bateratua antolatzeko batzordeak dira. Herriko matrikulazio guztiaren planifikazioa egiteko baliabide eta eskuduntza nahikoak dituztenak eta Hezkuntza Sailaren eta udalen arteko ko-gobernantzan oinarrituak direnak. Udalerri bakoitzaren ikastetxeen matrikulazioari loturiko erabaki eta neurriak hartuko dituztenak, tokian tokiko beharrei erantzunez eta segregazioa gainditzeko proposamen integralak garatuz.*

#### 33. artikulua.- Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeetan plazak eskuratzeko prozesua eta irizpideak

*3.- (aldatu) Hezkuntza-premia bereziak dituzten edo baliabide espezifikoak behar dituzten ikasleentzako beharrezkoak diren baliabideak eskaini beharko zaizkie ikastetxe guztietan, eta hau bermatzea ezinezkoa den kasuetan, **ikasleek** lehentasuna izango dute eskakizun horiei erantzuteko baliabideak dituzten ikastetxeetan. Erregelamendu-izaerako araugintza-xedapenen bidez arautzen da lehentasun-sistema hori.*

#### 34. artikulua.- Doakotasunaren bermea

*1.- (gehitu eta kendu) "Hezkuntza-administrazioak baliabide publikoak jarri behar ditu derrigorrezko eta doakotzat jotako irakaskuntzak doakoak izan daitezen. Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak zehaztuko ditu (**24.5 artikuluan**) bete beharreko irizpideak, eta finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxeen jarraipena egingo du lurralde-ordezkaritzetan antolaturiko ikuskaritzen eta auditoritzen bitartez, eta, ~~Lege honetan eta aplikagarria den araudi orokorrean ezarritakoaren arabera, hezkuntza zerbitzuen emaileak onartzeko betebeharrak eta prozedura arautuko ditu."~~*



2.- (gehitu) "Derrigorrezko doako irakaskuntzetan, eta arrazoi sozioekonomikoengatik bereizkeriarik gerta ez dadin, funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeek ezin izango dute doan emandako irakaskuntzengatik familietatik datorren inolako funts edo diru-kopururik jaso, eta, era berean, zentro horiek ezin izango dute fundazio edo elkarteei kuotak edo ekarpenak egiteko betebeharririk ezarri, ezta irakaskuntzei lotutako nahitaezko zerbitzurik ezarri ere, baldin eta finantzaketa publikoaren xede diren zerbitzu, prestazio edo esparru materialei eragiten badiete. Horretarako, funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxe guztiek haien urteroko kontuak modu gardenean publiko egin beharko dituzte.

Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeek araututako funts publikoetatik eratorzen ez den diru-kopururik jasoko balute, euskal hezkuntza zerbitzutik kanpo geratuko lirateke eta funts publikoak jasotzeari utziko liokete."

4.- (kendu eta gehitu) "Hezkuntza-eskumenak dituen sailak arautuko ditu, tokiko administrazioekin ko-gobernatzan, funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeei dagokienez, jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta ematen diren zerbitzuak, eta bermatuko du irabazi-asmorik gabeko izaera dutela, ikasleen parte hartzearen oinarrizko araudiaren arabera, eta ikasleen parte hartzearen borondatezkotasuna ere bai. Hartara, udalerrri berdinean eskaintzen diren jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak eta zerbitzuak arautzeko irizpide komunak ezarriko dira eta Udal Hezkuntza Kontseiluen bitartez betearazi, hauek segregazio iturri bilakatu ez daitezten eta doakotasunerantz urratsak eman ditzaten.

~~Era berean, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak tokiko administrazioen bidez laguntzak ezartzea aurreikusiko du, egoera sozial edo ekonomiko txarrean daudenek jarduera eta zerbitzu horiek eskuratu ahal izan ditzaten, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren plangintza estrategiko eta, hala badagokio, ikastetxeekin sinatutako den kontratu programa kontuan hartuta, Lege honetan ezarritako baldintzetan.~~

### III. TITULUA.- HEZKUNTZA-SISTEMAREN GOBERNANTZA

II. Kapituluak.- Ikastetxeen gobernu eta zuzendaritza profesionala. Ikastetxeetako zuzendaritzen lidergo pedagogikoa.

Lehen Atala: Ikastetxeetako gobernu-organoak

38. artikulua.- Zuzendaritza-taldea

5.- (gehitu) Zuzendaritza-taldeak beti errespetatu beharko du ikastetxeak onartzen duen Antolaketa- eta Funtzionamendu-Araudia, baita, hala badagokio, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak oro har onartzen duen etika- edo jokabide-kodea ere, titularitasun publikoko eta pribatuko ikastetxeetako zuzendaritza-organoetako kideei aplikatzekoa.

- Funts publikoak jasotzen duten ikastetxeei aplikatu beharrekoa, titularitate publikoa edo pribatua izan.

Bigarren Atala: Ikastetxe publikoen gobernuak

43. artikulua.- Zuzendaritza-taldea



4.- (aldatu) "~~Lurralde-ordetzariak~~ *Hezkuntza sailak* du zuzendaritza-taldeko kideak izendatu eta kargutik kentzeko eskumena, ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, irakasleen klaustroari eta Eskola Kontseiluari entzun ondoren."

#### 44. artikulua (bis) (gehitu).- Hezitzaile diren ez-dozenten parte-hartzea erabakiguneetan

1.- Hezkuntza-arretako profesionalak haien jardunari eragiten dioten eskolako erabakiguneetan berdintasun irizpideen arabera parte hartuko dute; besteak beste, irakasleen klaustro, ziklo-bilera eta maila-bileretan.

2.- Zerbitzuetako langileek, hezitzaile diren heinean, haien jardunari eragiten dioten erabakien parte izango dira, betiere berdintasun irizpideen arabera.

3.- Administrari zein atezainak, haien jardunari eragiten dioten erabakien parte izango dira, betiere berdintasun irizpideen arabera.

#### Hirugarren Atala: itunpeko ikastetxeen gobernu

#### 48. artikulua.- Zuzendaritzako kideak

1.- (gehitu) "*Itunpeko ikastetxe pribatuko zuzendaritzako kideek betetzen dute ikastetxeko zuzendaritza pedagogikoa eta kudeaketaren alorrekoa, artikulua honetan adierazitakoaren arabera. Zuzendaritzaren titularrak kontuak ematearen printzipioa bete beharko du.*

- Titularitate publikoko ikastetxeei eskatzen zaien bezalaxe.

3. (bis)- (gehitzea) *Ikastetxeko zuzendaritza hautatzeko prozedura berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera izango da, eta publizitate- eta gardentasun-printzipioak izango ditu ezaugarri.*

#### 50. artikulua.- Itunpeko ikastetxeetako Eskola Kontseilua

2.- (kendu) *Itunpeko ikastetxeen Eskola Kontseiluari honako eginkizun hauek dagozkie:*

a) *Ikastetxeko zuzendaria izendatzen eta kargutik kentzen ~~eta irakasleak hautatzen eta kaleratzen~~ parte hartzea, arlo horretan aplikagarria den legeriak ezarritako baldintzetan.*

### III. KAPITULUA.- Eskola kontseiluak eta parte hartzea euskal hezkuntza-sisteman

#### Lehen Atala: Irakaskuntzaren programazioan parte hartzea

#### 55. artikulua.- Irakaskuntzaren programazio orokorraren eremuak.

*Irakaskuntzaren programazio orokorrak, gutxienez, honako eremu hauek bilduko ditu:*

j) (aldatu) *Digitalizazioaren ondorioz datozen urteetako hezkuntza-sistemak eskatuko dituen irakaskuntzako lanbide-profilak ezartzea, software librea gaitasun eskatuz ~~baiz~~ hezkuntza-sistema mundu globalizatu batera irekitzearen ondoriozkoak ere. Software librea hezkuntza-proiektuen oinarrietako bat izanik eta botere korporatiboek mugak jarri.*

j) (bis) (gehitu) *Hezkuntza komunitateko pertsonen eskubide digitalak bermatuko dituen digitalizazio demokratikorako jarduerak, Big dataren erabilerari mugak jarri eta datuen erabilera debekatuz.*

#### Bigarren Atala: Euskadiko Eskola Kontseilua



#### 59. artikulua.- Euskadiko Eskola Kontseiluaren eginkizunak

1.- Euskadiko Eskola Kontseiluari nahitaez egin beharko zaio kontsulta honako gai hauei buruz:

j) (kendu eta gehitu) Irakasleen eta laguntzako edo administrazio-zerbitzuetako irakasle ez diren langileen ~~eskakizun profesional berriak definitzea~~, autoikaskuntzaren, digitalizazioaren eta software libreak oinarrituriko iraultza teknologikoaren ondoriozko erronka metodologikoei aurre egiteko, baita zenbait ikasgai beste hizkuntza batzuetan irakasteko ere.

- Langileen eskakizun profesional berriak dagokion mahai-negoziazailletan landuko dira alde sozialarekin batera negoziatuz eta definituz.

#### Hirugarren Atala: Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

#### 60. artikulua.- Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

2.- Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak honako esparrutan beteko ditu, besteak beste, eginkizunak:

e) (gehitu) Hezkuntza-administrazioak ondoren udalekin sinatuko dituen hitzarmenak bultzatzea eta irizpide komunak ezartzea, elkarrekiko erabilgarritasuneko prestazioak errazteko, hala nola liburutegiak, parkeak eta kirol-instalazioak.

#### Laugarren Atala: Udal Hezkuntza Kontseiluak

#### 61. artikulua.- Udal Hezkuntza Kontseiluak

1.- Ikastetxe bat edo gehiago dituzten udalerrietan, Udal Hezkuntza Kontseiluak eratuko ~~ahal izango~~ dira, tokiko administrazio eta hezkuntzan eskumena duen sailaren arteko ko-gobernantza formulak baliatuz.

4.- (aldatu) Udal Hezkuntza ~~Kontseiluei kontsulta egingo zaie honako jarduera eta eduki hauetan Kontseiluek hurrengo eskuduntzak izango dituzte:~~

(puntu berria) Udalerri horretako ikastetxeen eskolaratze eta planifikazio bateratua antolatuko dute, herriko matrikulazio guztiaren planifikazioa egiteko baliabide eta eskuduntza nahikoak izanik; Hezkuntza Sailaren eta udalen arteko ko-gobernantzan oinarrituko dira kontseiluok. Udalerri bakoitzaren ikastetxeen matrikulazioari loturiko erabaki eta neurriak hartuko dituzte, tokian tokiko beharrei erantzunez eta segregazioa gainditzeko proposamen integralak garatuz.

(puntu berria) Udalerri berdinean eskaintzen diren jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak eta zerbitzuak arautzeko irizpide komunak ezartzea eta betearaztea, hauek segregazio iturri bilakatu ez daitezen eta doakotasunerantz urratsak eman ditzaten.

### IV. TITULUA.- HIZKUNTZAK EUSKAL HEZKUNTZAN

#### I. KAPITULUA.- Euskal Hezkuntza-sistemaren esparru eleaniztuna eta kulturartekoa

#### 67. artikulua.- Esparru eleaniztasunaren ezaugarriak

1.- (aldatu) Euskal hezkuntza-sistema eleaniztuna da, euskararen ~~inguruan~~ murgiltze eta mantentze sisteman oinarrituriko ikas-eredu orokortu bakarrean artikulatua, eta bi hizkuntza





ofizial eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza bat kontuan hartzen dituen egitura du. Orain arte ezagututako hizkuntza-ereduak (A, B eta D) gainditzen dituena.

#### 68. artikulua.- Hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntzak

4.- (gehitu) Lanbide-heziketako irakaskuntzen eta araubide bereziko irakaskuntzen curriculumek bermatu behar dute ikasleek dagozkien irakaskuntza eta lanbide-eremuan berezko hizkuntza-gaitasun teknikoa eskuratzen dituztela; erdi-mailako zikloa bukatzean gutxienez b2 azpimaila izanik.

#### 69. artikulua.- Hizkuntza-proiektuak hezkuntza-sisteman

4.- (gehitu) Hezkuntza-administrazioak, dagokion ikastetxearekin lankidetzan, ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, hobekuntza-prozesuak gauzatzeko. Lankidetzaren honen baitan planifikatu dute, hala badagokio, hezkuntzan eskumena duen sailak eta ikastetxeak hizkuntza-ereduak desagertzeko eta euskararen ikas-eredu orokortua ezartzeko trantsizioa.

### V. TITULUA.- BERRIKUNTZA, EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

#### II. Kapituluak.- Euskal hezkuntza-sistema ebaluatzea eta hobetzea

#### 83. artikulua.- Ebaluazioa eta ikastetxeak. Kontuak ematea.

3.- (gehitzea eta kentzea) Kontu-ematea, oro har, ebaluatutako subjektu ez den organo edo erakunde bidez egingo da; hezkuntza sailaren menpeko ikuskaritza eta auditoria ekonomikoko lanak egiteko sortuko den administrazio-unitatearen bitartez, alegia. ~~Salbuespenezkoak dira fiskalizaziogai den organoak edo erakundeak berak kontuak emateko sistemak, eta onartzen dira soilik baldin eta helburua fiskalizazioa sustatzen duenaren gardentasun aktiboa hobetzen bada, eta beti datu fidagarriak eta modu enpirikoen egiaztatutakoak emango dira.~~

### VI. TITULUA.- IKASTETXEEN AUTONOMIA

#### II. Kapituluak.- Hezkuntza-proiektua

#### 98. artikulua.- Hezkuntza-proiektua

2.- (aldatu) Hezkuntza-proiektuak, halaber, jarduteko lehentasunak jasoko ditu, hezkuntza-administrazioak ezarritako euskal curriculumak zehaztuko ditu, ...

2. (bis)- (gehitu) Jangela ereduak hezkuntza-proiektuaren baitakoa izango da, jangelaren eta begiraleen izaera hezitzailea aitortuz eta aintzat hartuz. Jangela hezkuntza-proiektuaren parte izanik, elikadurak garrantzia hartuko du curriculumean eta tokian tokiko elikagaiak erabiltzea lehenetsiko da.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

Hirugarren xedapen gehigarria.- Ikastetxeak sare publikoan sartzea



**(aldatu)** Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak ikastetxe pribatuak titulartasun publikoko sarean ofizioz integratzea ahalbidetuko duen araubidea garatuko du hala eskatzen duten ikastetxeentzat, berau alde sozialarekin negoziatuz eta langileak subrogatuz. **plangintza-premia arruntei erantzunez eta Legearekin bat etorriz.**

- LABek uste du hezkuntza-legea sare publiko bakarrerako trantsizio tresna izan beharko litzatekeela, era deszentralizatuan antolatutako sarea eta partehartze eta autonomian oinarrituriko eskola anitzek osatua. Bide horretan publikazio aukera eta araudia -alde sozialarekin negoziatu beharrekoa- hala nahi duten ikastetxe guztientzako izatea aldarrikatzen du LABek, ez soilik hezkuntza sailak erabakitzen dituen horientzako.

## **LABek gehitzea proposatzen dituen XEDAPENAK**

### **Laugarren xedapen gehigarria.- Titularitate publikoko ikastetxeetako langileak**

Hezkuntza arloan eskumena duen sailak titulartasun publikoko langile kolektibo bakoitzean egun dagoen langileen lanpostu zerranda ezingo du gutxitu Lege hau indarrean dagoen bitartean.

### **Bosgarren xedapen gehigarria.- Titularitate pribatuko ikastetxeen langileen homologazioa**

Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte diren itundutako titularitate pribatuko ikastetxeen lan-baldintzak langile publikoen baldintzekin homologatzeko prozedura eta baliabideak emango ditu hezkuntza arloan eskumena duen sailak gehienez ere bi urteko epean. Titularitate pribatuko ikastetxeek funts publikoak jasotzeko betekizuna izango da eta kontrol publiko eta sindikalerako mekanismoak ezarriko ditu hezkuntza arloan eskumena duen sailak.

### **Seigarren xedapen gehigarria.- Soldata arrakalarik gabeko langile propioak**

Hezkuntza arloan eskumena duen sailak Lege hau indarrean sartzan denean kategoria berdineko langileen arteko soldatak berdinduko ditu, izan langile funtzionario zein laboral. Era berean, Lege hau indarrean jartzen denetik, langile kolektibo feminizatuetan soldaten igoera lineala izango da.

### **Seigarren xedapen gehigarria.- Sarbide gardenerako araubidea**

Urte bateko epean langile kolektibo ezberdinen sarbidea arautuko da, baremazio-sistema bateratu bat izanik titularitate publikoko edota itundutako titularitate pribatuko ikastetxeetan arituko diren langile guztiek. Langileen sarbiderako prozedura arautuak, hau gardena izan dadin, derrigorrez jasoko ditu meritua, gaitasuna eta berdintasun printzipioak bermatu eta eskaintzen publikitatearen inguruko betebeharrak.

### **Zazpigarren xedapen gehigarria.- Ikastetxe publikoen azpiegiturak**

Hezkuntza arloan eskumena duen sailak lehentasunez titularitate publikoko ikastetxeen azpiegiturak hobetuko ditu hiru arteko epean eta hala badagokio, berriak sortuko ditu.

### **Zortzigarren xedapen gehigarria.- Pribatizaturiko zerbitzuen errebertsioa zein publikazioa**

Hezkuntza arloan eskumena duen sailak Lege hau indarrean jartzen den momentutik zerbitzuak pribatizatzeari muga jarriko dio eta urte bateko epean pribatizaturik dituen zerbitzuen errebertsio nahiz publikazio prozesuak abiatzeko plangintza garatuko du. Plangintza honek jasoko du lehentasunez gauzatuko direla titularitatea publikoko zein pribatuko ikastetxeetan azpikontraturik dauden garbitzaile, jantokiko hezitzaile eta autobusetako langileen lehengoratzeak.

Plangintza gauzatu bitartean, Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte diren ikastetxe publiko zein itundutako titularitate pribatuko ikastetxeetako zerbitzuetako langileen lan-baldintzak langile



publikoen baldintzekin homologatzeko prozedura eta baliabideak emango ditu hezkuntza arloan eskumena duen sailak gehienez ere urte beteko epean. Kontrol publiko eta sindikalerako mekanismoak ezarriko ditu hezkuntza arloan eskumena duen sailak.

**Bederatzigarren xedapen gehigarria.- Hezkuntzarako inbertsio nahikoa**

Lege honek arau honen bidez finkatzen du hezkuntza arloan urtero dagoen aurrekontu-proiektua ezin dela Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren %6a baino gutxiagokoa izan.

Euskal Herrian, 2022ko irailaren 23an